

MANU MARAÑON

«Komunikatzea ez da magia, gimnasia baizik»

“Airearen kalitateak zure arnasketan eragiten du.
Zure komunikazioaren kalitateak zure bizitzan”.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

20 urte eman dituzu EHNE sindikatuan lanean. Erraz esaten da.

Zuzenbidean lizentziatua banaiz ere, nire benetakoa unibertsitatea EHNE izan da. 25 urterekin hasi nintzen, herrialde mailako sindikatuak zirenak Euskal Herri mailako batean gorpuzteko ahaleginean. Horrek eman zidan Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Iparralde ezagutzeko aukera, eta egun dudan Euskal Herriaren eza gutza zabala EHNERi zor diot. Oso momentu berezi eta korapilatsuak bizitzea egokitu zitzaizdan. Espainia Europar Batasunean sartzea erronka izugarria izan zen guretzat. Bistakoa zen aldaketa ekonomiko eta politikoa zetorrela, baina orduan Europa existitzen bazen, nekazal politika bat zegoelako zen. Orain politika komunak beste arlo batzuetara zabaldu dira, baina ez da ahaztu behar nekazaritzatik eraiki dela Europa. Guretzat oso prozesu konplikatu zen, aberatsa bezain gogorra, konturatzen ginelako oso baldintza kaskarretan sartu ginela Europan, nekazariak Espainia sistema demokratiko horretan kokatu eta onartzeko trukeko txanponak baizik ez zirela. Horiek horrela, izugarri ikasi dut baserritarregandik. Motibazio handiko jende fin, langile, jator eta umilarekin egindutako topo, eta oso harro nago Euskal Herri mailako mugimendua bertebratu gendelako. Orain dela hamar urte utzi nuen, eta handik hona, EHNERen baitan krisi batzuk egon eta ikusgarritasuna falta bazaio ere, etorkizunean euskal nekazal sindikalagintza oso aberatsa izango delakoan nago.

Ikusgarritasuna lortzea: hori da elkarte, sindikatu, mugimendu eta komunikazio aholkulari askoren obsesioa.

Bi arazo daude. Bat izan daiteke komunikatu ahal izateko gauzak egin egin behar direla,

eta geldirik dagoenak, proiekturik aurkezten ez duenak, edo ezer interesgarriarik sortzen ez duenak, komunikabideetara jo arren ez duela arrakasta handirik izango. Hor bakoitzak pentsatu behar du zer egiten duen ondo eta zer txarto. Alferrik da besteei erruak egotea ez badugu gure erantzukizuna hartzen. Beste arazoa, gizarte zibileko mugimendu sozial askori gertatzen zaiena da: oso lehengai ona daukate, baina ez dute produktua ondo saltzen. Funtsezkoa da lanari ekitea, proiektuak garatzea, mezu argia izatea, baina baserritar bati, fruta eta barazki onak izateak ez dio baserritik bizi ahal izatea bermatzen. Bizi nahi badu saldu egin behar du. Nire irudipena da herri mugimenduek oso lan ona egiten dutela, baina saltzerako orduan, gutxitan borobiltzen dutela jokaldia. Bitartean, enpresa munduko jendea, politika mundukoa, nolabait esateko botere esferetan dabilena, egundoko ahalegina egiten ari da trebakuntza soziala jasotzeko. Jabetu dira mundua aldatu dela. Badakite orain arteko bertikalitatea bukatzeaz dagoela eta geroz eta horizontalagoak izan beharko dutela harreman sozial eta ekonomiko askoz konplikatuagoen aurrean. Pena da mugimendu sozialak ez konturatzea.

NORTASUN AGIRIA

Manu Marañon 1957ko abenduaren 6an jaio zen Diman. Deustuko Unibertsitatean zuzenbidean lizentziatua, 1983tik 2002ra EHNE sindikatuan egin zuen lan, eta 1994an egindako irratia eta telebistako komunikatzaileen masterrari esker, 2004tik hona komunikazio *coach*-a da, eta prestakuntza ikastaroak ematen ditu (www.komunikarte.org).